

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Jendaurrean jartzea hiri antolamendurako plan orokorraren hasierako onespena, egikaritze laburpena eta ingurumen azterlan estrategikoa

Lapuebla de Labarcako Udalak, Udalbatzak 2020ko urriaren 30ean egindako osoko bilkura berezian, erabaki zuen hasierako onespena ematea Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari, bai eta dagokion ingurumen-azterketa estrategikoari ere. Haiekin batera, egikaritze laburpena aurkeztu zuen, proiektatutako antolamenduak indarrean dagoena aldatzen duen eremuen mugaketarekin eta hirigintza-antolamendua edo egikaritzeko prozedurak eteten dituzten eremuekin lotuta, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 25. artikuluan, 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 32. artikuluan eta Lurralde antolamendurako planak eta hirigintza antolamendu tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak bere 90.5 artikuluan eta Planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak bere 12. artikuluan xedatzen dutena betez, jendaurrean jartzen dira bi agiriak 45 egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu den hurrengo egunetik aurrera. Egun horietan interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzeten alegazioak aurkeztu ahal izango dizkiote, idatziz, alkateari. Espedientea udalaren web orrian ere aztertu ahal izango da eta egunkaririk salduenetako bitan ere argitaratuko da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 85.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eten egiten da edozein onarpen, baimen eta lizentzia ematea, bi urtez gehienik ere, xedapen berriek indarreko hirigintza araubidea aldatzea dakarten arloetan.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Lapuebla de Labarca, 2020ko azaroaren 4a

Alkatea

MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ